AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4376

1607/2015 EBAZPENA, irailaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2014ko azaroaren 7an emandako 612/2014 Epaiaren betearazpena argitaratzeko dena, Xabier Galdós Eceolaza jaunari dagokiona, Ingeniari Teknikoaren kategoriakoa (2008ko EPE).

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2014ko azaroaren 7ko 612/2014 epaia ikusi da eta agindu judizialari dagokion administrazio-espedientea aztertu da, ondoko hauetan oinarrituta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 11ko 4392/2008 Ebazpenaren bidez, Ingeniari Teknikoaren kategorian (Mantentze eta Instalazioetako Erdi mailako Teknikariaren postu funtzionala) lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartu ziren (EHAA 13 zk. 2009ko urtarrilaren 20koa). Hautatze-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenean onartu ziren (EHAA 232 zk., 2008ko abenduaren 3koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 4ko 1450/2009 Ebazpenaren bidez, Ingeniari Teknikoko kategorian (Mantentze eta Instalazioetako Erdi mailako Teknikariaren postu funtzionala) gainditutakoen zerrenda onartu zen.

Ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 23ko 440/2010 Ebazpenaren bidez, Ingeniari Teknikoaren barne sustapeneko txanda bidezko hautagaien zerrenda onetsi zen. Horren eranskinean, Modesto Mateos Bazaga jauna agertzen da, 87,2600 punturekin.

Era berean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 23ko 441/2010 Ebazpenaren bidez, txanda irekiaren bidezko hautagaien zerrenda onetsi zen, eta horren eranskinean Xabier Galdós Eceolaza jauna agertzen da 137,5000 punturekin.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 58/2011 Ebazpenaren bidez, Erdi mailako Teknikarien Lanbide Taldeko Ingeniari Teknikoaren kategorian (Mantentze eta Instalazioetako Erdi mailako Teknikariaren postu funtzionala), barne sustapeneko txandan, hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu zen (EHAA 65. zk., 2011ko apirilaren 4koa). Horren I. eranskinean, destinoa esleitu zitzaion Modesto Mateos Bazaga jaunari Arabako Eskualdean.

Azkenik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 59/2011 Ebazpenaren bidez, Erdi mailako Teknikarien Lanbide Taldeko Ingeniari Teknikoaren kategorian (Mantentze eta Instalazioetako Erdi mailako Teknikariaren postu funtzionala), txanda irekian, hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu zen (EHAA 65. zk., 2011ko apirilaren 4koa). Horren II. eranskinean, Xabier Galdós Eceolaza jauna agertzen da, destinorik lortu gabe.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 58/2011 Ebazpenaren aurka gorako errekurtsoa jarri zuen Xabier Galdós Eceolaza jaunak, ondoren, administrazioarekiko auzibidea hasi zen (409/2011 laburtua).

Prozedura judizial horri lehen auzialdian amaiera eman zion epaiak (Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. Epaitegiaren 2012ko ekainaren 29koak), zati batean onartu zuen jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2014ko azaroaren 7an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa ezeztatu zuen eta lehen auzialdiko epaia baietsi zuen, 612/2014 epaiaren bidez, irmo dela deklaratutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari dagokio epaia exekutatzea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 dekretuak ematen dizkioten eskumenen arabera.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegi eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, horixe xedatzen baita administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 58/2011 Ebazpena, Erdi mailako Teknikarien Lanbide Taldeko Ingeniari Teknikoaren kategorian (Mantentze eta Instalazioetako Erdi mailako Teknikariaren postu funtzionala), barne sustapeneko txandan, hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratzeko dena (EHAA 65. zb., 2011ko apirilaren 4koa) ezeztatu egin da Modesto Mateos Bazaga jauna hautatutako hautagaien eta esleipenaren behin betiko zerrendan sartzeari dagokion puntuari dagokionez, irailaren 14ko 1606/2015 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Era berean, Modesto Mateos Bazaga jauna Ingeniari Teknikoko kategoriako kargutik kentzea erabaki da.

Horren ondorioz, eta interesdunek hautatze-prozesuan garatutako jarduteekin lotuta, deialdiaren oinarri orokorren I. eranskinaren 1.2 atalean ezarritakoa kontuan izanik, Xabier Galdós Eceolaza jaunari Arabako Eskualdean destino bat esleitzen zaio.

Hirugarrena.– Hemen aldatzen direnetatik at geratzen diren prozedura izapidetzerakoan gertatutako beste hainbat administrazio-jarduteek bere hartan jarraitu behar dute (30/1992 Legearen 66. artikulua), egindako termino zehatzetan.

Horregatik guztiagatik, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2014ko azaroaren 7ko erabakia bete dadin agintzea, Xabier Galdós Eceolazari dagokionez, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren baitan.

1.– Xabier Galdós Eceolaza jaunari destino bat esleitzea Arabako Eskualdean, ezarritako prozeduraren arabera, Ingeniari Teknikoaren kategoriako txanda irekian.

2.– Xabier Galdós Eceolaza jauna langile estatutario finko izendatzea, Ingeniari Teknikoaren kategorian (Mantentze eta Instalazioetako Erdi mailako Teknikariaren postu funtzionala), Arabako Eskualdean.

3.– Xabier Galdós Eceolaza jaunak hilabeteko epea izango du destinoaz jabetzeko, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Destinoko lanpostuaz jabetzeko ekitaldia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian izango da, egoitza zentralean, izangaiak aldez aurretik hitzordua eskatuta, eta esleipendunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ekitaldi horretan:

– NAN, pasaportea edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege-arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

– Diziplina-espediente bidez izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena edo hitzematea.

Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez bada edo agiri horiek aztertuta atzematen bada betebeharren bat betetzen ez duela, ezingo da jabetu esleitu zaion langile estatutarioaren destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezakeen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuari gogorarazten zaio lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hautaprobei buruzko ebazpenean aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, lanpostuaz jabetzen bada, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuen barruan esleitu zaion erakundean.

Bigarrena.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginetik at geratzen diren gainerako egintza eta izapideek bere hartan jarrai dezatela aginduko da.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitara dadila agintzea, Xabier Galdós Eceolaza jaunari jakinaraztea eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. Epaitegiari komunikatzea.

Laugarrena.– Epaia betetzeko izapideetan sor daitezkeen gorabeherak aztertzea eta ebaztea aipatutako epaitegiari dagokio, halaxe ezartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.